



■ HERNANI ERRUGBIA

Errugbiko bazkide kanpaina martxan da

Hurrengo asteetan irekiko dira Landareko bulegoak harpidetza berriak egiteko. Gaurtik aurrera, bazkide direnek, aukera dute Landarera hurbildu eta bazkide txartela berriak lortzeko.

TALDE hernaniarrak, Liga Sevillan hasiko du, irailaren 15eko asteburuan, Sevillako Ciencias taldearen aurka, hain zuzen. Eta urtero moduan, ostiral honetan Lizarrara doaz, igande arte, donbaraldia prestatzeko asmoz eta baldintza hobereentan bueltatzeko gogoarekin.

Nola egin bazkide

Hernani errugbi taldea jarraitu nahi bada, hurrengo asteetan irekiko dira Landareko bulegoak, harpidetza berriak egiteko. Bazkide direnak, gaurtik aurrera, Landaretik pasa daitezke bazkide txartel berrien bila. Asteguneko arratsaldeetan izango dute aukera hori, eta antolatzaileek adierazi dute, salneurriari dagokionez, aurreko urtekoa mantenduko dela.

Datorren denboraldi hau, irailaren 15etik, maiatzaren 10era izango da. Harpidetzari buruzko informazio gehiagorako, Landarera jo daiteke, edo webgunean (www.hernanirugby.eus) kontsultatu daitezke baldintzak. ■



■ HERNANI ERRUGBIA

Hernaniko errugbi taldeak porrotarekin hasi zuen Euskal Liga, larunbatean

Arratsaldeko 18:30etan izan zen partidua Landaren. Aviron Bayonnais taldearen aurka aritu zen eta ezin izan zion garaipenari eutsi. Hala ere, zaleen aurrean emandako itxura zoragarria izan zen.

ETXEKO taldeak ezin izan zuten garaipenarekin hasi Euskal Liga, hala ere, zaleen aurrean emandako itxura, paregabea izan zen.

19 eta 33ko emaitzek, sentsazio «gazi-gozoek» utzi zituen Landaren. Hernaniko gazteek, bikain eutsi zioten lehen zatiari, hori dela eta, hasierako minutuak nahiko orekatuak izan ziren. Baina atsedenaldea iritsi aurretik, iparraldeko mutilek ensaio bat egin, eta aurretik jartzea lortu zuten.

Bigarren zatian, Aviron taldeak nagusitasun handiago erakutsi zuen, eta partida borobiltzea lortu zuten. Hernaniko errugbi taldeko antolatzaileek adierazi dute, ederki hasi zela Liga, bi taldeek izan baizuten erritmoa, intentsitatea eta defentsa lan bikaina. ■



Xabat Erroizena, Hernani errugbi taldeko kidea, larunbateko partiduan.

■ HERNANI ARRAUNA

Ligaz kanpokoaren ostean, 'Maialen' traineruak bi estropada Liga amaitzeko

Larunbat arratsaldean, 'Maialen' trainerua Donostian izan zen Urumea ibaian barrena antolatu zen estropadan. Ligarako punturik lortu ez arren, Isuntza atzean utzi eta seigarren postua lortu zuen.

AURREKO ostegunean, Hernaniko neskek, Castroko estropadetan 3 puntu lortu zituzten, eta ETE Ligako sailkapenean zortzigarren postuari eutsi diote, 62 punturekin.

Larunbatean ordea, Ligaz kanpokoan aritu ziren, arratsaldeko 17:30etan, Donostiako Urumea ibaian antolatu zen estropadan. Bi tanda burutu

ziren bertan, eta Maialen trainerua, lehenengoan atera zen, San Juan eta Isuntzarekin batera. Hernaniko neskek, lehenengo tanda honetan, bigarren gelditu ziren, aurretik San Juan, 10 segunduko diferentziarekin. Lehenengo tanda honetan beraz, aurreneko postuari San Juanek eutsi zion, ondoren Hernani,

eta hirugarren Isuntza gelditu zen.

Larunbateko Ligaz kanpoko sailkapen orokorrean honela gelditu ziren; Zumaia lehenengo, bigarren San Juan, hirugarren Hibaika, laugarren Desto, bostgarren Tolosaldea, seigarren Hernani, zazpigarren Isuntza eta azkeneko Lapurdi, ez baitzen Ligaz kan-

pokoan aritu.

Estropada honek, Ligarako punturik emango ez badu ere, lehiaketako giroan murgilduta jarraitzeko balioko die hernaniar neskei, Liga amaiera gertu baitago. Hilaren 24an eta 25ean jokatu dituzte azken estropadak eta sailkapenean koxkaren bat gora egiten saiatuko dira. ■

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko



GAUR Gaur eguraldiak okerrera egingo du, batez ere hegoaldean. Zerua lainotuta egongo da egun osoan zehar, eta tarteka euria egongo du. Egunaren amaieran, zaparradak egongo dira eta baliteke trumoiak eta ekaitzak jotzea. **Min.16° / Max.19°**



BIHAR Temperaturak antzekoak izango dira, euria bereizki ekialdean egingo du. Zeruan hodeiak oso ugariak izango dira, hala ere arratsaldean saretzen hasiko da. Ez da tenperatura aldaketarik egongo, lpar haizea nagusituko da gaurkoan ere. **Min.14° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



ERGEBIKO JAIK XII. KROS HERRIKOIA

Ergobiko festak ostiralean eta Kros Herrikoia larunbatean

Ostiralean hasiko dira festak Ergobin, eta txupinazioa arratsaldeko 16:00etan izango da. Urteroko Kros Herrikoia, larunbatean izanik.

OSTIRALEAN emango zaie hasiera Ergobiko festei, goizeko 12:00etan, jaietan parte hartuko duten idi eta zaldien pisaketarekin. Arratsaldean izango da txupinazioa eta haur jolasak ere egongo dira, hala nola, puzgarriak, apar festa, txokolatada eta beste hamaika ekintza gehiago.

Gaueko 21:00ak aldera luma gorri oilasko jatea egongo da karpan, bapo afaltzeko. Helduak 20 euro ordaindu beharko dituzte, eta 16 urtetik beherako hurrek, 12 euro. Afaria amaitu ostean, Ergobiko Penthatloia egongo da. Punta puntako herri kirolariak auzoko taldearen aurka, hain zuzen.

XII Kros Herrikoia, larunbatekoa

Ostiralean amaituko da izen emateko epea. Inskripzioak 11 euro balio du, eta www.kronoa.com web orrialdean egin daiteke.

10 kilometroko lasterketa izango da, Ergobiko plazatik hasiz, eta Santiomendiko



Aurreko urteko XI. Kros Herrikoia.

bideetan barrena murgilduko da. XVII Bernardo Arzallusen oroimenean burutuko da lasterketa. Txapela, helmugara iristen den lehenengo gizon eta emakumarentzat izango da, eta garaikurra berriz, auzoko irabazlearentzat zuzenduta joango da.

Parte hartzaile bakoitzak Idiazabal gazta laurden bat jasoko du, eta horrez gain, Sagardo botila eta FULL GAS en gel bat. Behin proba amaitu

ostean, nahikoa janari egongo da, berrito ere indarrak hartu eta festetan jarraitzeko. Parte hartzaileen artean zozketak egongo dira, sari ugari baitaude banatzeko. Jarraian, tortila patata lehiaketa eta bazkari herrikoiaz gozatzeko aukera egongo da.

Beraz, antolatzaileek Krosean izena emateko, arin ibiltzea gomendatzen dute, ostiralean ixten baita izena emateko epea. ||

HERNANI GURE ZIRKUA

Gure Zirkuan, hernaniarrak

Larunbat honetan, arratsaldeko 19:30etan, Orion izango da Gure Zirkua. Bertan, zenbait hernaniarrek musikaz eta magiaz girotuko dute karpa.

GURE Zirkua, Orion eskainiko ditu uda amaierako ikuskizunak. Eta larunbat honetan, hernaniarrak hartuko dute parte. Hego haizea taldea eta Ainara Ortega entzuteko aukera egongo da. Ondoren Andoni Martinez de Ustaranek magia ikuskizun labur bat eskainiko du, Hernaniko Bitartean folk taldeak bere saioa girotuz.

Hori dela eta, hernaniarrek Oriora hurbiltzeko deia egin nahi izan dute. Musika euskaldunaz, argentinarrak, eta bien fusioaz gozatzeko aukera paregabea dagoela azpimarratuz. ||



Gure Zirkuan parte hartuko duten hernaniarrak.

ASTIGARRAGA KIROLA



Lizeaga anaiek Adunako txapelketan.

Lizeaga anaiek, txapela etxera

Hilaren 10ean, larunbata, Adunako txapelketan jokatu zuten Eñaut eta Ekain Lizeaga anaiek, eta nola jokatu gainera. Txapelketan nagusi ziren eta garaipenaren txapela etxera eraman zuten. ||

FUTBOL 7 TXAPELKETA

Futbol zazpi txapeleketa, arriskuan

Larunbatean, ospatuko da dispersioaren aurkako futbol 7 txapelketa. Hala ere, antolatzaileek adierazi dute, bertan behera gelditzeko arriskua dagoela, ez baita jende nahikoa apuntatu. Beraz, jendea animatzeko deia luzatu nahi izan dute antolatzaileek. ||

EREÑOTZUKO DENDA

Ereñotzuko denda, arratsaldez ere irekita

Gaurtik aurrera, Ereñotzuko dendak arratsaldez ere atek irekiko ditu, 18:00etatik 20:00etara, hain zuzen. Orduetegi hau, hilabete amaiera arte izango da. ||

PORTU ETA ELIZATXO AUZOAK

Portu eta Elizatxoko lanak, gaurtik

Trafiko korapilo asko egon ohi dira Portu eta Elizatxo auzoetan. Hori dela eta, udalak neurriak jarri ditu, eta gaur hasiko dira lanak eginen. Tuneleko lanak egin bitartean, hilaren 26tik 30era bitartean tunela itxita egongo da. ||

GOIZUETAKO UDALA

Goizuetako Udala itxita, gaur

Goizuetako Udalak jakinarazi die Goizuetako herritarrei gaur, egun osoan zehar Udala itxita egonen dela. Barkamena eskatu du Udalak, eragozpenengatik. ||

IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu jatetxe bateko sukaldean laguntzeko eta arraskako lanetarako.

Kotxea beharrezkoa da. Deitu: 943 33 13 87

Itziarroyo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura, ... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA